

LOHP aldaketa sakonaren bila

Ana Isabel Prieto da Plataformaren hautagaia maiatzeko hauteskundeetan

Bigarren urtez egongo da Lasarte Oriako Herri Plataforma Udal hauteskundeetan "aurten gainera aurreko legegaldian baino ilusio handiagorekin gatzoz" azaldu zuten aurkezpenean.

Lau urteren buruan berriro Ana Isabel Prieto izango da alkategaia eta berriro ere helburu zehatz batekin aurkeztuko da "Udalak gestio gardenaren bidea jarraitzea eta herritarrekiko hurbiltasuna sustatzea, hauen interesak eta ahotsak entzun daitezten".

Herritarrek ordezkatzeko

2007ko hauteskundeetan lehenengo aldiz aurkeztu zen LOHP eta orduan, zinegotzi bat eskuratu zuten.

Lau urte hauetan "aldaketa handia eman da Udalean, baina oraindik gauza ugari daude egiteke, aldaketa handia, sakona eta onuragarria bilatzen dugu".



Lasarte-Oriako LOHP alderdian pasa den legegaldiko taldea errepikatuko du.

Hots guztietantzeko leku

LOHPak lasarteoriatarren hotsa Udalean entzunaraztea zuten helburu, "gogor borroka-

tu gara hori lortzeko. Gure herrian hots ezberdinak daude eta hauek lekua izan behar dute".

Duela lau urte herritar talde hau politikan sartu zen "herriko udal politika gardena eta hobea egiteko konpromisua hartu genuen. Horren bidean gaudela ikusita orduko talde berak errepikatuko du 2011ko hauteskundeetan".

Web orrialde berria

Era berean, Lasarte Oriako Herri Plataforma web orrialde berria, www.pclo.net, martxan jarri du.

Honetan, alderdiko informazio zabalaz gain, Lasarte-Oria berarena ere eskaintzen du LOHP. Orrialde erraza da eta bertan Lasarte-Oriarako daukan proiektua zabalago ezagutzeko aukera eskaintzen digute.

Alderdi politikoa bezala sortzearen arazoak eta helburuak argi agertzen zaizkigu bertan "beti Lasarte-Oriaren zerbitzuan sortutakoa". Bertan ere, datorren legegaldirako prestatu duten programa ikusi daiteke. •

Maiatzaren 22ko hauteskundeetan kanpaina hasi da

Lasarte-Orian aurkeztu diren alkategaiei arlo ezberdinei buruz duten iritzia eskatu diegu. Lau zenbakitan, hirigintza; gizarte, kultura eta euskara; ekonomia eta krisi egoera; eta azkenik alderdi bakoitzaren ildo nagusiak jorratuko dituzte. /4-5 ORRIALDEAK

Bilduren ilegalizazioaren aurka

Bilduren ilegalizazioaren aurkako mobilizazioak egin ziren asteartean hainbat herritan. Lasarte-Orian ere, Udaletxe aurrean bildu zen herritar multzo bat *Eskubide guztien alde, ilegalizazioarik ez* lelopean.

Era honetara, Auzitegi Gorenak hartutako erabakia salatzen zuten. Bart, Auzitegi Konstituzionalaren erabakia baino lehen, manifestazio jendetsua egin zen Bilbon.

Gaur ere mobilizazioak egongo dira, Udaletxe eta Michelin fabrikaren aurrean. •



Herritarrek Udaletxe aurrean bildu ziren Bildu alderdiaren ilegalizazioa salatzen. Gaur 12:00etan, kontzentrazioa deitu du LABek.

KULTURA/3

Lasarte-Oriako Belle époque garaia bertso saioaren zutabe izango da

GIZARTEA/3

Giza Balioetan Hezi jardunaldiek etika izango dute ardatz

KIROLA/6

David Martin korrikalaria Andoainen eta Huarten garaile

Gipuzkoan zer berri?



Gipuzkoako HITZAn kontatuko dizugu, ostiralero

Aktualitatearen Interpretazio sakona goa, lasalagoa

Erreportajeak

Tokian tokiko gai interesgarrien bilduma

Elkarrizketak

Astebururako proposamenak

Garai bateko Gipuzkoa ezagutzeko aukera, protagonisten euren ahotzak

Agenda

Irirtzia

Erman ezazu izena eta **jaso doan** zuk aukeratutako kioskoan, **ekainaren 24ra arte**

Erabili bide hauek eskaera egiteko:

943-30 43 45
herraldekoa@hitza.info

Adierazi: izen-abizenak, helbidea, telefona eta posta elektronikoa

BERRIA Taldeak sustatu eta garatutako proiektua

Alderdien giza iragazki Organiza, Datu Pertsonalaren Informatika, Bereziki, bildumazuzen dizuguzum datu pertsonalari (LUSKAZO) EDUKI GAZO "ALDUEN" Posting, informazio, baina jaso da ditek. Zure eduki giza iragazki, sustatu eta kontu egiteko edukioak, mobilizazio, heldu egiteko bideak, gure, hitza, honetara: EUSKAZO EDUKI GAZO, Martin Ligabide Kalea, 100, 48001 Andoain.

Zorion-agurrak



Gorka eta Alberto

Zorionak! Zuek bai tarta erraldoia egiteko txutxeri gozoak!



Iker eta Nora

Zorionak bikote! Bost muxu handi eta txokolatezko bi, aita, ama eta familiaren partetik.



Gorka eta Marco

Zorionak bikote! Ondo pasa eta bi muxu nire etxeko mutilentzat amaxoren partetik.



Nora

Zorionak Nora zure 3. urtebetetzean! Familia guztiaren partetik!



Igor

Zorionak Potxoko zure 3. urtebetetzean! Egun ona pasa eta muxuak familiaren partetik.



Eneko

Zorionak pottoki! Txokolatezko 2 muxu erraldoi: aita, ama eta aitona-amonak.



Cecile eta Asher

Happy anniversary mahalko eta zorionak seme zure 1 urtebetetzean. Muxu asko aitaren partetik.



Elene

Zorionak polita! Zure ahizparen eta gurasoen partetik txokomarrubizko muxu bat.



Oihan

Zorionak zure bigarren urtebetetzean. Bi muxu handi osaba eta izebaren partetik.



Julen

Zorionak, zure urtebetetzean, 5 muxu handi familiaren partetik, bereziki aita, ama eta Endika.



Aiora

Txokolatezko 4 muxu goxo etxeko printzesarentzat, aita, ama eta Oierren partetik.



Ane

Zorionak Printzesa zure 7. urtebetzean. Milaka muxu, Eneko, amaxo eta aitaoren partetik.



Irati

Zorionak etxeko divinari!!! Jarraitu beti bezain poxpolin!!! Aita, ama, Eneritz eta familia guztiaren partetik.



Koan

Muxu handi bat etxeko gizontxoarentzat. Zorionak!



Ainara

Zorionak! Lagunik onena zera. Arkaizten partetik. Muxuk eta ondo pasa.



Maialen

Zorionak printzesa, marrubizko 6 muxu potolo eta ongi pasa zure egunean, aitona-amonak eta familia.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- 116m²-ko pisua salgai, kultur etxearen parean. 3 gela, 2 komun, jantzigela, egongela eta sukalde ederra. Gela guztiak kalera ematen dute. Berrituta, sartzeko prest: 639 738 413.
- Mobil home bat saltzen da, Oriten. Interesatuak telefono zerbaki honetara deitu: 626057485, Jone.
- Hernaniko alde zaharrea etxe berria salgai, 270.000 euro. Tel.: 943 332320 edo 685 369 952.
- Lizarran pisua salgai. Aukera paregabea. Ez zara damutuko. Tel.: 677 678 270.
- Etxebizitza salgai. 4 gela, sukaldeta, egongela, bainua eta komun, 2 balkoi, trasteroa eta garajea ditu. Denak kanpora, Decathlonetik gertu. Tel.: 635 710 170.
- Etxea alokatzen da Usurbil erdian, bi logela. Tel.: 685 724 771.

Lan-eskariak

- Emakume euskalduna eskaintzen da gaixoak edo adineko pertsonak zaintzeko, etxean edo ospitalean. Ordutegi malguta, bai egunez edo gauz. Prezio ekonomikoa. 687 348 223.
- Gizonezko batek lan egingo luke zamalanan, lorezaintzan, eraikuntzetako zaintzaile e.a. Harremanetan jartzeko, 667 808 934.
- Lasarte-Oriako neska gaztea eskeintzen da kurtsuan zehar lana egiteko, urteak zaintzen edo klaseak ematen. Harremanetarako telefonoa, 677 823 141.
- Andre euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako: 618 097 676.
- Pertsona arduratsua arindua eta gaixoak zaindu, atezain lanak, garbiketak edo bestelako lanak egingo lituzke. Esperientziaduna eta tratua onekoa. Tel.: 680 983 527 (Carlos)

Bestelakoak

- Josteko makina pedaladuna, soberan baduzu, gustura hartuko nuke. Tel. 943 247613 edo 615 709117 Pilar.

Oharrak jartzeko:

www.txintxarri.info
Tel.: 943 366858

Jaiotzak

- Ane Perez Gonzalez, apirilak 28.
- Sara Marantes Murillo, apirilak 28.
- Leire Martinez Hdez., apirilak 26.
- Enaitz Serrano Fuentes, apirilak 16.
- Maddi Delgado Jimenez, apirilak 16.
- Grethel Berenice Ramos Canales, apirilak 13.

Heriotzak

- Maria Dorronsoro Dorronsoro, maiatzaren 4an 89 urterekin.

- Castor Barquilla Solis, apirilaren 19an 91 urterekin.

- Ignacio Iriondo San Ildefonso, apirilaren 19an 74 urterekin.
- Francisco Letamendia Usandizaga, apirilaren 15ean 72 urterekin.
- Pedro Irurzun Balda, apirilaren 15ean 74 urterekin.
- Bittori Aduriz Iraola, apirilaren 14an 88 urterekin.
- Maria Egaña Urreta, apirilaren 13an 85 urterekin.

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 6

Orue, Jaizkibel plaza 2

Tel.: 943 362652

Larunbata, 7

Urbistondo, San Frantzisko I

Tel.: 943 366567

Igandea, 8

Urbistondo, San Frantzisko I

Tel.: 943 366567

Astelehena, 9

De Miguel, Kale Nagusia 32

Tel.: 943 371151

Asteartea, 10

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea

Tel.: 943 361774

Asteazkena, 11

Gil, Kale Nagusia 24

Tel.: 943 361529

Osteguna, 12

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6

Tel.: 943 363549

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero

Chucua, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta
Euskara Departamendua



**EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Lasarte-Oriako Belle Epoque garaia bertso saioaren zutabe

- Udaberriko saioa larunbatean gaueko 22:00etan Kultur Etxean
- Egaña, Estiballes, Unai Muñoa eta Ane Labakak abestuko dute
- Herriko antzezle, musikari eta dantzariak ere arituko dira

Lats-arte, Lasarte+Oria, Lasarte-Oria" deitu diote Ttakuneko antolatzaileek aurten Udaberriko Bertso Saioari eta herriaren historian zehar nabarmenak izan diren momentu eta pasadizoak izango dira bere haria eta ardatza.

Batez ere, Belle-Epoque deituriko urrezko garaian murgilduko dira eta hori irudikatzeo argazki zaharrak erabiliko dituzte Edu Galardiren laguntzari esker.

Ttakunek antolatu du laugarren aldiz saioetara joan ohi ez direnak bertsoaritzara hurbiltzeko helburuarekin. Urtero oso ekitaldi berezia eta ikusgarria bihurtu da, bertso-lariekin batera herriko "artistek" parte hartzen dutelako.

Aurten Andoni Egaña, eta Arkaitz Estiballes Bizkaiko txapeluna arituko dira herriko Unai Muñoa eta Ane Labakarekin batera bertsoan, eta beraiekin batera parte hartuko dute besteak beste Lasarte-Oriako udal musika eskolako partaideak, Loatzo musika eskolako bi irakasle, Aitor Atxega, Mirari Irurtzun eta Petra Elserrek, Xumela abesbatzak, Kukuka taldeko antzezleak, Charlestona eskainiko duten Ana Minguez eta bere dantzalagunak eta klakea dantzatuko duen Tik-Tak-Clak taldeak.

Aurreko urteetan antzerkia eta dantzak hartu zuten bertsoekin batera protagonismoa, eta aurten zuzeneko musika izango da ardatz eta berrikuntza nagusia. Saio osoan zehar jardungo dira aipatutako musikariak jotzen. •



Lasarte-Oria sortu zenetik gaur egunera ibilbide eta historia dira saioaren ardatza.

Bihar hasiko du Gipuzkoako Txapelketa Andoni Otamendik

Igande honetan hasiko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen fasea eta hain zuzen ere Andoni Otamendi lasarteoriarak kantatuko du Orion goizeko 11:30etan egingo den lehen saio horretan. Lehen fasean bi aldiz kantatuko du bertsoari bakoitzak eta onenek irailko bigarren fasea pasatuko dira (Unai Muñoa jada sailkatuta dago). Ondoren etorriko dira final laurdenak urrian, finalerdiak azaroan eta finala abenduaren 18an Donostian.

Otamendik esan bezala igandean goizeko 11:30ean kantatuko du Orioko Herri Ikastolako aretoan. Gero hilaren 28an kantatuko du Amezketan arratsaldeko 17:30ean. Zigor Iriondok eta Unai Gaztelumendik Mutrikan kantatuko dute 14an 17:30ean eta Usurbilen 28an 11:30ean. Ane Labakak 14an Alegian 17:30ean eta ekainaren 6an 11:30ean Zumarraga Urretxun Asier Azpirozekin. Beñat Iguaranek 15ean Lezon 17:30ean Azpirekin eta 28an Amezketan 11:30ean. •

Etikari buruzko hitzaldi sorta aste osoan

Gizarte Balioak eta Etika" izango da aurten astelehenera ostegunera burutuko den Balioetan Hezi Jardunaldien VIII. edizioaren gaien ardatza. Manuel Lekuona kultur etxean arratsaldeko 19:30ean jardungo dira, Danok Kide elkarteak gonbidatu dituen hizlari interesgarriak.

Jose Maria Setien Donostiako gotzain emerituaren eskutik Galdera etikoa eta eti-

karen krisia gainditzeko funtsezko printzipioak landuko dira hilaren 9an, astelehenean esan bezala 19:30ean.

Asteartean, Arturo Garcia Bake eta Justiziako elizbarrutiko giza idazkari, ekonomialari eta irakaslea izango da hizlari. Etika eta ekonomia globalizazioaren testuinguruan kokatu eta landuko ditu kultur etxean.

Hilaren 11n, asteazkenean Etika eta ingeniariaritzaren genetikoa jorratuko ditu Pablo Eraso

Biologia eta Kosmologiako irakasleak.

Azkenik, hilaren 12an, ostegunean Juan Pagola, Informazio zientzietan lizentziatua eta irakaslearen eskutik giza komunikazio baterako etika landuko da. Lau hitzaldi hauetan koordinatzaile moduan Xabier Andonegi izango dugu.

Gogoratu, astelehenera ostegunera bitartean arratsaldeko 19:30ean kultur etxean hitzaldi interesgarriak. •



AURREKANPAINA

Markel Olanoren bisita

Markel Olano EAJko Aldun Nagusirako hautagaia Lasarte-Orian egon zen astelehenean. Lehenik, prentsaurrekoa eskaini zuen Sagardotegi kalean EAJko zerrenda buru den Estitxu Alkortarekin batera. Juan Mari Iradi eta Boris Nogales EAJ alderdiko zerrenda kideen babesa ere izan zuen ekitaldian.

Estitxu Alkortak alkatetzaren lana kritikatu zuen, "Gobernu taldearen lanak kezkatzen gaitu, 2008. urteko aurrekontuekin ari da lanean eta hiru urteetan ezin izan ditu hauek berritu".

Alderdi jeltzaleko zinegotziak aldaketa behar dela adierazi zuen, "2011. urteko aurrekontuak aurkezteko asmorik ez dutela uste baitugu".

Honetaz gain, Gobernu lokalak bere lana "plan finantzarioa" egin beharrean, garatu gabeko ideia populistak "egiten dituela salatu zuen.

Bestalde, Olanok Bilduren ilegalizazioari buruz hitz egin zuen, "honek euskal gizarte desorekatzea besterik ez du helburu".

Ostean, Biak Bat erretiratuaren etxeari bisita egin eta bertan zudenekin hitz egin zuten. •

IKASTAROK

Elikagaien kalitatea eta segurtasuna

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Sanitateko Departamentuarekin elkarlanean, ikastaro bat emango du elikagaien kalitateari eta segurtasunari buruz.

Ikastaroa maiatzaren 12an emango da, Osasun zentro berriko bigarren solairuko erabilera anitzeko aretoan. Orduetara 16:00etatik 20:00etara bitartekoa izango da.

Informazio gehiago jaso edo izena emateko, deitu 943 533 303 telefonora. Antolatzaileak jakin arazi duenez, langabezia dauzen pertsonentzat prezio berezia egingo da. •

Gazteek Internet ongi erabiltzeko ikastaroa

Eusko Jaurlaritzaren Sanitate eta Kontsumo Departamentuak antolatuta, Lasarte-Oriako Udalaren Kontsumoko Departamentuak laguntzarekin, gurasoei eta hezitzaileei zuzenduriko Gazteak eta nabigazio segurua ikastaroa antolatu da.

Jardun teoriko praktikoa izango da, eta hurbiltzen direnak jakintzak, trebetasunak eta jarrerak eskuratzea, adingabeen bideojokoak modu seguru, arduratsu eta autonomoan erabiltzen eta Interneten nabigatzen irakasteko.

Ikastaroa Osasun zentroko erabilera anitzeko aretoan egingo da, maiatzaren 25ean 18:00etatik aurrera. Izena eman edo informazio gehiago eskuratu nahi duenak, 943 361 605 zenbakira deitu dezake. •



DISKO BERRIA

"Gaueko Itzalak" Flor de cañ n

"Lurra hiltzen" lehen diskoa aurkeztuko du gaur, ostirala, gaueko 23:00etatik aurrera herriko "Gaueko Itzalak" taldeak Flor de cañ n (leheguz Zulo) tabernan. 5 euroen truke diskoa oparitu dute eta gainera aurretik Hilotz taldeak joko du. Hamar abesti berri grabatu ditu taldeak. •

IRRISTAKETA

Helduentzako ikastaroa

Eguraldi ona iritsi da eta haur ugari ikusten da gure herriko kaleetan patinetan. Helduak, ordea, gutxi dira. Horregatik, Ostadar K.F.ak helduentzako irristaketa ikastaro berria antolatu du maiatzaren 20 eta 21an, ostirala eta larunbatean, Loidi Barreneko pilotalekuan.

Antolatzaileek aipatu digutenez, ostiralean 18:00etatik 20:00etara eta larunbatean 15:30etik 17:30era izango dira saioak.

Irristaketa ikastaroaren prezioa 17 euro dira. Izena emateko epea maiatzaren 18an, asteazkenean, bukatzen da.

Informazio gehiago eskuratzeko hainbat aukera daude. Lehenengo Ostadarreko egoitzara, Geltoki kalea 25, hurbiltzea. Bestetik, 943 36 04 33 telefono zenbakira deitzea edo, azkenik, itziar@ostadarkf.org helbidera mezua bidali. •

TXIRRINDULARITZA

Giroko porra martxan jarri da

Urtero bezala, Ostadar Kirol fundazioak txirrindularitza porra antolatu du. Bihar, maiatzaren 7a, Giroa hasten da eta hau izango da porra honetan kontuan hartu den lehenengo proba.

Oinarriak nahiz txartelak ohiko tabernetan daude dagoeneko. Tiket bakoitzak 7 euro balio ditu eta antolatzaileek jakin arazten dute, bihar 21:00etan bilduko direla txartelak.

Sariei dagokionez, etapa bakoitzean 60 euro lortuko ditu irabazleak; sailkapen orokorreko lehenarentzat, 360 euroko saria dago eta bigarrenarentzat, 180 eurokoa. Puntu gehien batzen dituen tabernak bi pertsonentzako afari bat irabaziko du Aratz erretegian.

Honetaz gain, ohitura denez, zazpi urdaiazpiko zozketatuko dira parte hartuko dutenen artean eta zortzigarren bat egongo da porrako azkenarentzat. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, aurten urteko porra ezberdin guztietan zerrenda onena egiten duenak 1000 euro irabaziko ditu. •

David Martin garaile Andoain eta Huarteko lasterketatan

Herriko korrikalariak baterik bestera ibili dira aste hauetan. David Martin bi probatan izan zen garaile, Andoaingo SantaKruz jaietako eta Huarteko herri lasterketan. Gonzalo Sukunza ere lehenengo izan zen San Adrianen.

David Martin herritarrak igandean, maiatzaren 1ean, Andoaingo XXIII. Santakrutzetako herri lasterketan parte hartu zuen eta 32:10 denborekin gailendu zuen.

274 korrikalari, gizon, zein emakume izan ziren 10 kilometroko ibilbidea zuen proban.

Era berean, apirilaren 17an, Huarten antolatzen den Hiru Herri lasterketan garaipena eskuratu zuen Lasarte-Oriako atletak.

Honetan, faborito zen Jaïouad Boualama lasterketako buruan bakarrik zihonan, baina huts bat egin zuen eta horrek, David Martin helmugara lehenengo iristea ekarri zuen, 32:20 denbora eginez.



David Martin Hiru Herriko lasterketako helmugara iristen. Arg.: diariodenavarra.es

Jaïouad Boualama bigarren izan zen 31 segundora eta hirugarren sailkatuari, Gabriel Garini 32 segundoko errenta atera zion herriko atletak.

Sukunza San Adrianen

Bestalde, Zumeatarra taldean dabilen Gonzalo Sukunzak

ere Nafarroako San Adriango lasterketan garaipena eskuratu zuen.

Lasterketa honen bigarren edizioan, atleta lasarteoriatarak 1:15:00 denbora egin zuen. Bigarren eta hirugarren sailkatuei hiru minutuko errenta atera zien. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 07

09:45ean, Ostadar - Santo Tomas Lizeoa (Partehartze infantilak, kopa) Michelinen.
10:30ean, Aretxabaleta - Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, txapeladunen fasea) Ibarra, Aretxabaletan.
11:15ean, Ostadar - Aurrera de Ondarrea (Kadeteen Ohorezko maila, igoera fasea) Michelinen.
12:45ean, Ostadar - Touring (Emakumezkoen KDT F-II, txapeladunen fasea) Michelinen.
14:15ean, Ostadar - Arrasate (Infantil Txikiak, kopa) Michelinen.
15:00etan, Zumaia - Ostadar (Emakumezkoen Liga, kopa) Aita Mari, Zumaian.
15:45ean, Ostadar - Bergara (I. Erregionala, igoera) Michelinen.
16:00etan, Urnieta - Ostadar (I. Jubenila, kopa) Urnietan.
17:30ean, Ostadar - Beti Ona (Erregional Gorena) Michelinen.

Igandea 08

09:45ean, Ostadar - Martutena (I. Kadetea, kopa) Michelinen.
11:15ean, Texas Lasartearra - Beti Gazte (I. Erregionala, kopa) Michelinen.
13:00etan, Ostadar - Kostkas M.B. (Jubenilen Ohorezko maila, igoera fasea) Michelinen.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 06

HERRIKO TXAPELKETA
Finalerako Fasea, joaneko finalerdiak Kiroldegian
20:00etan, ISU Leihoak - Buenetxea
21:00etan, Izkiñ - Semblante Andaluz

Larunbata 07

16:00etan, ISU Leihoak - Ignacio Hondarribia Taberna (Gipuzkoako Liga, I maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Ligaxkako joaneko finalerdiak Michelingo kirol gunean
11:00etan, Ilargi - IOB
12:00etan, Ayete - Oria kristaldegia

18:15ean, Soloarte - Aldaz H.K. (Nazional B maila) Artunduaga kiroldegia, Basaurin.

PILOTA

Larunbata 07

15:30ean, Intza - Zumaia (Udaberri txapelketa, eskuz binaka, infantilak) Michelingo pilotalekuan.
15:30ean, Intza - Allerru (Udaberri txapelketa, eskuz banaka 4 terdian, kadeteak) Michelingo pilotalekuan.

Igandea 08

10:30ean, Urnieta - Intza (Udaberri

txapelketa, eskuz binaka, kadeteak 2. urtea) Urnietan.

PALA

Larunbata 07

Txapelketako finalerdiak Michelingo pilotalekuan
16:45ean, J. Begiristain eta X. Etxezarreta - I. Lizaso eta J. Alzibar
17:45ean, B. Odriozola eta S. Martin - J. Iparragirre eta K. Rozas

SQUASH

HERRIKO TXAPELKETA
18:00etatik aurrera **Ostirala 06**
Michel Zugasti - Fernando Montero
Joaquin Peña - Raul Mateos

Astelehena 09

Iñaki Garcia - Iker Cañedo
Veronica Gonzalez - Irati Agirre

Asteartea 10

Xabier Amiano - Jon Linazisoro
Ivan Sancho - Oswal Cañedo

Asteazkena 11

Agustin Erkizia - Xabier Linazisoro
Alberto Udabe - Javier Serrano

Osteguna 12

Xabier Amiano - Emilio Hernandez
Ivan Sancho - Quinin Calvo

ATLETISMOA

Larunbata 07

09:15ean, LOKEko jubenil eta junior mailako atletak Euskadiko txapelketa dute Durangon.
17:15ean, herritar talde batek III. Altzako herri biran parte hartuko dute, Donostian.

Igandea 08

10:00etan, herritar multzo batek VII. Izarraitzko mendi lasterketan parte hartuko dute, Azkoitian.
10:30ean, herritar batzuk VII. Aloñako igoeran parte hartuko dute, Oñatin.
10:30ean, Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako alebin eta infantilek Gipuzkoako txapelketako 3. jardunaldia dute, Zumaragan.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 07

10:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako jubenilek XXXV Lazkaomendiko proban parte hartuko dute, Lazkaon.
11:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteek Gaztetxoak trofeoan parte hartuko dute, Usansolo, Bizkaian.
16:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantilek Gipuzkoako erlojupeko txapelketan parte hartuko dute, Tolosan.

Igandea 08

08:00etan, Ostadarreko zikloturista taldeak irteera egingo du, Goizueta eta Leizta aldera.
16:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako jubenilek Snata Cruz proban parte hartuko dute, Seguran.

IGERIKETA

Igandea 08

Egun osoa, Buruntzalde IKT-ko infantil, junior, promesa eta absolutuek Sotilek Udala V. Sarian parte hartuko dute.

BOLA-JOKOA


Igandea 08

Egun osoa, Ostadarreko bola joko taldeak Gipuzkoako Kopako jardunaldia du, Urnietan.

ESKOLA KIROLA

Larunbata 07

10:15etatik 12:00etara, Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako LH3 eta LH4 mailako gaztetxoek Igeriketa Topaketa dute, Kiroldegian.



Egunero

Erakusketa

LASARTE-ORIAKO AUZO ELKARTEAK antolatzen duen margo eta marrazki eskolako ikasleen erakusketa. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa

PALESTINA ETA GOLANEKO GIZA EUSKUBIDEAK argazki erakusketa Mundu Bat GKE-ren eskutik. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.

Ostirala, 6

Kontzertua

ROBERTO YABEN Musika eskola-ko gitarra elektriko irakaslearen kontzertua, Xpressionk, Lasarte-Oriako Udalaren laguntza antolatzen duen Xpressionk Zirkuituan. Manuel Lekuona kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Kontzertua

GOLDEN APPLE QUARTET laukotearen Los Golden en blanco y negro ikuskizuna. Sarrera, 10 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:30ean.


GAZTELANIAZ.

Kontzertua

GAUEKO ITZALAK herriko taldearen diska berriaren aurkezpena eta Hilotz taldearen saioa. Sarrera, 5 euro eta diska opari izango da. Flor de Caña tabernan, 23:00etan.

Kontzertua

LOLAS CLUB taldearen rock/roll kontzertua zuzenean entzuteko aukera. Abend kafe-antzokian, gaueko 12etan. Doan.



Azkorteko erromeria igandean

Urtero bezala, igandean ospatuko da Azkorteko erromeria. Ermitara autobusez joan nahi duenak 09:00etatik aurrera egin dezake erretiratuen egoitzatik. Autobusak plaza gutxi dituzenez, mezetara joan nahi duenak autobusa nahiko goiz hartzea gomendatzen da. Hori bai, sasoioko dagoenarentzat, egokiena, joan-etorria oinez egitea da.

Aurten ere meza ospatuko da goizeko 11:00etan eta bertan Alboka abesbatzak eta Amalur trikitixa taldeak hartuko dute parte. Ondoren Patxi Etxeberria eta Zigor Iriondo bertsolariek saioa eskainiko dute eta jarraian herri kirolak hasiko dira. Kirolariek amaitutakoan, Amalur taldeak girotutako erromeria izango da.

IGANDE GOIZEAN, AZKORTEKO ERMITAN

Larunbata, 7

Bertsosaioa

Arkaitz Estiballes, Andoni Egaña, Ane Labaka eta Unai Muñoa bertsolariek herriko hainbat talderen laguntzarekin UDABERRIKO BERTSO-SAIO BEREZIA eskainiko dute. Sarrera, 3 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:00etan.

EUSKARAZ.

Igandea, 8

Zinea

GNOMEO Y JULIETA animaziozko filma, haurrentzako zinea saillean. Sarrera, 3,30 euro. Kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.

Astelehena, 9

Hitzaldia

Danok Kidek antolatutako

VIII. Balioetan hezi jardunaldietan, LA PREGUNTA ÉTICA Y PRINCIPIOS FUNDAMENTALES PARA SUPERAR LA CRISIS DE LA ÉTICA hitzaldia eskainiko du Jose María Setien Donostiako gotzain emerituak. Kulturetxean, 19:30ean. GAZTELANIAZ.

Asteartea, 10

Hitzaldia

Danok Kidek antolatutako VIII. Balioetan hezi jardunaldietan, ÉTICA Y ECONOMÍA EN EL CONTEXTO DE LA GLOBALIZACIÓN hitzaldia eskainiko du Arturo García ekonomista eta irakasleak. Kulturetxean, 19:30ean. GAZTELANIAZ.

Asteazkena, 11

Hitzaldia

Danok Kidek antolatutako VIII. Balioetan hezi jardunaldietan, ÉTICA E INGENIERÍA GENÉTICA hitzaldia eskainiko du Pablo Eraso Biologia eta Kosmologia irakasleak. Kulturetxean, 19:30ean. GAZTELANIAZ.

Osteguna, 12

Hitzaldia

Danok Kidek antolatutako VIII. Balioetan hezi jardunaldietan, ETICA PARA UNA COMUNICACIÓN MÁS HUMANA hitzaldia eskainiko du Juan Pagola informazio-zientzietan lizentziatua eta irakasleak. Kulturetxean, 19:30ean. GAZTELANIAZ.

Zinea

CHE, UN HOMBRE NUEVO filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,30 euro. Kulturetxean, 21:30ean. GAZTELANIAZ.

Oharrak

Ostalarien bilera

Lasarte-Oriako ostalaritza elkarteak sortzeko asmoz, maiatzaren 10ean, gaueko 21:30etan Buenetxea tabernan herriko ostalariei biltzeko deia luzatzen nahi zaie.

Zabaleta auzoko jaiak

Zabaleta auzoko lagunak ekainaren lehenengo astean egingo diren auzoko jaiak antolatzen hasi dira. Bilerak ostegunetan Antonio Blas plazako garajearen egingo dira.

Herri Urratserako autobusa

Ttakun Kultur Elkarteak Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du. Igandean, goizeko 09:00etan aterako da Sagardotegi plaza ingurutik. Txartelak 12 euro balio ditu eta salgai daude Jalgin eta Ttakunen.

Lourdesera bidaia

Biayk Bat elkarteak maiatza-

ren 12rako Lourdesera bidaia antolatu du. Irteera 7:30ean izango da egoitzatik. Lourdesera 10:30etarako iritsi eta 11:30eko meza entzungo dute. Ostean, 14:00ak aldera, L'Ardiden jatetxean bazkalduko dute. Bidaiaren prezioa, 34 euro dira.

Arantzatik Lasarte-Oriara oinez

Ostadar Mendi elkarrekin San Juan Xar eremutik, Arantzatik Lasarte-Oriako mendi ibilbidea antolatu du maiatzaren 21erako. Ondoren, indarrak berreskuratzeko Zubietako elkarrekin afaria izango dute.

Izena emateko jo Lagunak elektrizitate dendara. Inskribatzeko azken eguna, maiatzaren 13 ostirala, izango da.

Udalekueetan begirale izateko

Ttakunek Udalaren laguntza antolatzen dituen Udako Txo-

koak egitasmoan edo Mendigorrian eta Kanpaldietan begirale izateko aukera dute nahi duten gazteek. Udalekuak uzaitlan eta abuztuan izango dira. Interesa dutenek maiatzaren 10a baino lehen eman behar dute izena, horretarako: mezu bat bidali dezakete aisia@ttakun.com helbidera edo Ttakunek bulegotik, Geltoki kale 4 zenbakitik, pasa daitezke.

Gigantak dantzatzeko ikastaroa

Gigantak dantzatzeko ikastaroa antolatu du Arriaskallete elkarteak. Parte hartu nahi duenak, kulturetxera azaltzea besterik ez du asteazkenetan 20:00etatik 21:00etara. Informazio gehiago arriaskallete@gmail.com helbidean.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza

hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, lau bizikleta, hiru erloju, urrezko pultsera, erazten bat, diru zorro bat, neskaren esku-muturreko bat, bi zilarrezko pultsera, bi betaurreko graduatu bata zorroarekin, bi telefono mugikorrek bata poltsarekin, haur zamarra bat, larruzko zamarra eta belarritako batzuk.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitza

Ez dugu onartzen

Maiatzaren 22an ospatzen den hauteskunde egunaren harira, hego Euskal Herriko kaleetan barrena kokatuta aurki ditzakegu alderdi politikoei beren afixa eta propaganda bitartekoak ezartzeko panelak. Panel zuri-zuriak, egun gutxitan era guztietako mezu eta proposamenez beteko diren egurrezko xafla dotoreak.

Lasarten ere halako hainbat kokatu dituzte auzoetan zehar. Baina bada gauza esanguratsu bat gure herrian ezarri dituzten panel hauetan; "Elecciones" delako hitza agertzen da bertan, besterik gabe. Jakina da hego Euskal Herriko biztanle gehienek gaztelaniaz ari zirela inongo arazorik ez dutela. Baina zergatik ageri da informazio hau gaztelania hutsean? Ezker Abertzaleak gogor salatu nahi du batzuko zertzeladatzat hartuko duten egoera hau. Izan ere, uste dugu Euskaldunok nahikoa da esateko ordua iritsi dela. Utzikeriaz eta inongo sensibilitate gabe egindako ekintza dela uste dugu, era naturalean gauzatua, euskara ezertarako behar ez duen norbaitek bideratua.

Nahikoa da; aspertuta gaude herriko ordezkari politikoei plenoetan beste alderdien zeresanak bertze itzultzaile zerbitzua erabiltze behar horrekin; ez dugu ulertzen udaleko alderdi nagusiak etxeetara bere hauteskunde propaganda gaztelania hutsez bidaltzea, gutxienez bi alditan 2010-2011ko honetan: minduta gaude euskarak pairatzen duen errespetu faltagatik, eta aztoratuta euskaldun gisa XXI. mendean oraindik ere hizkuntza eskubide bermirik ez dugulako. Euskaraz bizitzeko hautua egin baitugu, euskara baita gure amaren bularretik jaso dugun mundua ikusteko leihotxo hori, eta euskara delako gure izena, izana, ekina eta etorkizuna.

Lerro hauetatik deialdi zuzena egiten diogu guzti honen arduradunari hauteskunde kanpaina hasi aurretik panel hauetan euskal eledunon eskubideak bermatuak izan daitezela.

Lasarte-Oriako
Ezker Abertzalea



IZARRA BITXITEGIA



www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY® A.I.E.

